

**ETORKINEN ETA ERREFUXIATUEN
MUNDUKO EGUNA**

Urtarrilaren 14an, ospatu izan dogu aurtengo Etorकिन eta Errefuxiatuen Eguna. Gitxi izango dira munduan zehar, etorkinen eta errefuxiatuen alde, Frantzisko Aita Santua beste arduratu diranak. Edozer aukeraz baliatzen da arazo larri horretaz jendea kontzientziatzeko. Bai kristauak eta bai borondate oneko pertsonak eta baita gobernuak ere.

Aita Santu izendatu geroztik, ez da isildu ere egin! Etorकिन eta errefuxiatuen sastada mingarria bihotz barnean sartuta da-roala, dirudi. Besteak beste, itzelezko bi arazo garrantzez kezkatuta agertzen jaku Frantzisko Aita Santua. Bata, gerra mundialaren arrisku bildurgarriaz eta bestea, etorkinen eta errefuxiatuen amaibako zoritxarraz.

“Hirugarren gerra mundialean, zatika izanda ere, sartuta gagoz, gerra nuklearraren arriskua hortxe dago. Arazo honeek ez dira lagunekin kartetan esaten diran bromak. Benetan larritzen nau munduko aberastasun guztiaren %80a gitxi batzuen eskuetan egoteak. Gaurko sistema ekonomikoaren bihotzean ez dago dirua eta dirua besterik. Ez gizakirik, ez pertsonarik ez Jaungoikorik. Dirua eta dirua eta dirua. Holan doa sortzen gizartean ‘bartzertze kultura’ bildurgarria” (ikus. Karmel, 298. Zenb. 2017-2).

Mediterranio itsasoa hilerri bihurtzen doa

Aita Santuaren beste arazo larrienetarikoak etorkinen eta errefuxiatuen zoritxarra da. Nor ez da ikaratu, Frantzisko Aita Santuak Lampedusan euren seme-alabak galdu ebezan gurasoei zuzendutako hitzaldiaz edo Sardinian munduko finantza-sistema salatu ondoren edo Filipinetan umeen esplotazio lotsagarria garbi akusatu ebanean?

Oraintsu, migrazioetarako pastoraltzako europar arduradunekaz batzartu zanean, Aita Santuak argi berba egin eban: “Anai-arreba maiteok ez deusuet Europako hainbat lurraldetan hedatuta dagozan intolerantzia, bazterketa eta xenofobiako ezaugarriak eragiten deusten ardura ezkutatu gura. Sarritan, bestearenganako, desberdinarenganako, atzerritarrarenganako mesfidantza eta bildurrak eragindako ezaugarriak dira. Eta gehiago kezkatzen nau oraindik Europako gure alkarte katolikoetara begiratu eta holako jarrerak aurkitzea, jatorrizko kultura erlijiosoa gordeteko ‘betebehar moralaren’ atxakiaz. Eleiza, kultura guztietako gizon eta emakumeentzat dan Jesukristoren salbamen-mezuaren unibertsaltasunean sinisten eben misiolarien ‘migrazinoari’ esker zabaldu da kontinente guztietara. Eleizaren historian, beti izan dira eskusibismoa eta norbere kultura gordetea lako tentazinoak, baina Espiritu Santuak beti lagundu deusku gainditzen, bestearenganako eten bako irekitzea ziurtatuz eta irekitze hori hazteko eta aberasteko aukeratzat hartuz. Espirituak, seguru nago, gaur be laguntzen deusku konfiantzaz betetako zabaltze-jarrerari eusten, holan, edozein hesi gainditu eta edozein hormaren gainetik salto egin ahal izateko”.

Eskandaluzko datuak ditu bistan Aita Santuak. Goseteen edo gerra gatazken edo klima-aldaketaren eraginez, 280 milioi lagun jatorrizko herrialdetik kanpo bizi dira, tartean 60 milioi errefuxiatu eta asilo-eskatzaile. Errukarrizko egoera

hau adierazteko esaldi oso gogorrak erabili izan ditu Aita Santuak. Batzuk lotsaren lotsaz gorrituta izten gaituenak. Esaterako, bat hauxe: “Mediterranio itsasoa etorkinen hilerri bihurtzen doa”.

Etorkinek eta errefuxiatuek onartzea

Etorkinek eta errefuxiatuak onartzea ez da nahikoa pare bat hilabetean ostatu emotea edo. Askotaz gehiago eskatzen dau Aita Santuak: “Bertako bat bezala, zuetako bat balitz lez, hartuko dozue etorkina eta zeuen burua lez maitatuko, etorkin izan zineen zeuok be Egipton (Lb 19, 34). Gure atea jotzen dauan kanpotar bakotxa historiako edozein sasotan atzerritar onartu edo baztertuagaz bat egiten dauan Jesukristogaz bat egiteko aukera da. Jaunak Eleizaren ama-maitasunaren ardura-pean izten dau etorkizun hobearen bila bere herria derrigorez itzi behar dauan gizon-emakume bakotxa. Ardura hau esperientzia migratzailearen aldi guztietan zehaztuko da: urteera, bidaia, iritsiera eta itzulera. Eleizak sinistedun guztiakaz eta borondate oneko gizon eta emakumeakaz konpartitu gura dauan erantzukizun handia da, gaur egungo migrazinoek aurrez aurre jarten deuskuezan askotariko erronkei eskuzabalatasunez, prestasunez, jakituriaz eta irekitasunez, bakotxak bere ahalmenen arabera, erantzutea dagokigu eta. Hau dala eta, gure erantzuna lau aditzen inguruan: hartu, babestu, sustatu eta gizarteratu artikulatu daitekela berretsi gura dot”. (cf. Ecclesia, 3.916 Zenb, 2017, 27-29 orr.).

Frantzisko Aita Santuak lau aditz honeek darabiltza gure erantzuna zelakoa izan behar dauan adierazteko.

1. **Hartu**, hau da, “aukera gehiago eskaini etorkin eta errefuxiatuak modu seguru eta legezkoan sartu daitezkan doazen herrialdeetan”. Eta ez errukiagaitik, “gizon eta emakume bakotxaren funtsezko duintasunaren ize-nean baino”. “Arrotzaganako txera onez, ez ahaztu:

abegi honi eskerrak, batzuek, ezer jakiteke, etxean aingeruak hartu ebezan eta” (Hb 13, 2).

2. **Babestu**, jatorrian, bidaian eta helmugan. Eta batez be umeak, ahulena. “Jaunak gordeten ditu bidez doazenak, umezurtza eta alarguna janaritzen ditu (Sal 146, 9).
3. **Sustatu**, hau da, “etorkin eta errefuxiatu guztiei Sortzailak gura dauan gizatasuna osatzen dabena alderdi guztietan, besteak beste, alderdi erlijiosoan, osotasuna jadesteko aukera emon”. “Umezurtzei eta alargunei zuzentasuna egiten deutse eta arrotza maite egiten dau, hari ogia eta jantzia emonik. Arrotza maite izango dozue, ba, zeuok ere Ejipton arrotzak izan zinien eta” (Dt 10, 18-19).
4. **Gizarteratu**, hau da, integratu, bertakotu, “bat egitearen kultura ahalbideratu. Besteaganako hartu-emonak beragan jadesteko aukera emon”. “Ez zaree arrotz eta etorri barri, santuen herri-lagun eta Jaungoikoaren etxeko baina” (Ef 2, 19).

Aita Santuaren ikuspegitik etorkinek eta errefuxiatuek integratzen lan gehien eta ondoen egiten ari dan nazioa Suedia dogu. Bederatzi milioi biztanle ditu. Eta horreetatik, 890.000 etorkinen seme-alabak dira. Suediako gobernuaren arazo larriena ez da atzerritarrak onartzea edo ez onartzea, kanpotarrak zelan gizarteratu baino. Bestela getoak sortzen diralako.

Aita Santuarentzat, Eleiza gaur be sinisgarri izango bada, harreragile, babesgile, sustatzaile eta gizarteratzaile izan behar dau. Batez be txikientzat, makalentzat, zeresan gitxi daukeenentzat, kanpotik datozenentzat, etorkin eta errefuxiatuentzat.

“Gainera etorkinak eta errefuxiatuak, ez datoz esku hutsik. Euren ausardiaren indarra, euren gaitasunak, euren arnasa barria eta zer esanik ez, euren kulturaren altxorrak dakarrez. Honela, etorkinak eta errefuxiatuak onartzen dabean nazioak ere aberastu egiten dira. Danok egiten dogu Jaungoikoaren seme-alaben familia bakarra. Eta munduaren aberastasunak danontzat emoten deuskuz Jaungoikoak” (cf. ibid. Ecclesia, 28 orr.).

A. Olea